

NELSON MANDELAREN AZKEN HITZAK

Juan Gorostidi, 2013ko udan

Uste duzue ni, Nelson Mandela, heroi bat naizela, santu bat, agian, zuen txikitako amets ederrak edo amets gaiztoak pizten zituen haietako baten antzekoa... Baina ez da halakorik, aspaldian hil bainintzen ni.

Kontatuko dizuet gertatutakoa.

Mila bederatziehun eta hirurogeita lauan izan zen. Etsaiek harrapatu ninduten, kolpatu, torturatu eta hiltzera kondenatua izan nintzen. Baina ez urkamendian, soka batetik zintzilik anaia asko bezala, propio ni bezalakoentzat sortutako infernua hiltzera baizik. Kare meategiko harriak txikitu behar nituen egunean hamaika orduz, egun bakoitzeko indarrak akitu bitartean. Harriari ematen nion kolpe bakoitzean neure burua kolpatzera kondenatua izan nintzen berrogei eta sei urterekin.

Hamabi urteko infernua izan zen hura zulo erre hartaraino mila bederatziehun eta hirurogeita hamaseian suzko suzko haize batek Mandelaren azken arrastoa deuseztatu zuen arte. Eskola-ume eta gazte matxinatuen deidarrak sortua zen haize bortitz hura, eta Soweton pizturiko sumendian zuen iturburua. Eskola-umeek eta gazteek eragina, gure seme-alabek, kalean dantzan, ihesean tirokatuak, hilak zirenek piztutakoa.



Hector Peterson 1976ko ekainaren 16an Soweton erahila

Urtebete geroago Stephen Biko gaztea, Sowetoko borroka haiek antolatzen sortutako nire semea, torturapean hil zutenean gertatu zen nire azken suntsipena, bigarren heriotza, enegarrena, erabatekoa... eta baita mirakulua ere: zuek ulertzeko moduren batean esateko, hilda eta infernura kondenatua zegoen hura, berpiztu egin zen, nire arbasoen hizkuntzan murmurio bat desertu errean ur txorroka bihotzak zeriona: Yihla moja! , yihla moja! Betor izpiritua!, entzuten nuen gelditzen zen guztia argizatzen. Eta ez zen izpiritu hura Nelson Mandelarena; Hector Petersonenena, Soweton hil zuten hamabi urteko mutiko harena baizik, eta Stephen Bikorena , nire baitan biztu zirenak.



Stephen Bikoren gorpua, 1977ko irailaren 12an Pretorian erahila

Ezaguna duzue ondorengo istorioa, gaur arte hogeita hemezortzi urtez jarraitu duena: berpiztutako gizon hark jarraitu behar izan zuen zenbait urtez kare harriari mailukadaka, baina mailukada bakoitza, orduan, ez zen dagoeneko existitzen ez zen Mandelaren buruaren aurkakoa, esperantza irrazional bat bizteko balio zuena baizik. Eta askatasuna, eta amodioa...

Esango didazue guztiau ipuin bat dela, eta ni kartzelatik irten ondoren, hildakoak – umeak eta gazteak–, poliziak tirokatuak jarraitu egin dutela. Egia da; heriotza horietako bakoitzak nire arima berria kolpatzen du oraino, eta ez dut mailurik, ez kare-harririk kolpe horiek itzularazteko.

Horrek eragiten dit azken heriotza hau, izpiritu erratuen mundura berpizturiko arima gazte hura betikoz itzuliko duena

Baina esan beharra nuzuen hogeita batgarren mendeko bigarren hamarkadan hilko den agure hau ez dela, ez, Nelson Mandela; ezta Hector Peterson edo Stephen Biko ere, mailukadaka kare-harria txikitzen hiltzera kondenatua, kalean tirokatua eta komisarian torturaz eraildako haien errautsetatik – zuen saindua, bakearen heroia deitzen duzuen hori– biztutako izpiritu baten aztarna baizik, hiltzeko prest dagoen edozeinengan betiko iraungo duen arnasa bizigarriaren oihartzun etengabea.

Out of the night that covers me,
Black as the pit from pole to pole,
I thank whatever gods may be
For my unconquerable soul.
In the fell clutch of circumstance
I have not winced nor cried aloud.
Under the bludgeonings of chance
My head is bloody, but unbowed.
Beyond this place of wrath and tears
Looms but the Horror of the shade,
And yet the menace of the years
Finds and shall find me unafraid.
It matters not how strait the gate,
How charged with punishments the scroll,
I am the master of my fate:
I am the captain of my soul.

William Ernest Henley (1875),

September '77 / Port Elizabeth weather
fine / it was business as usual / in police
room 619 / oh Biko, Biko, because Biko /
yihla moja, yihla moja /-the man is dead.

[The Xhosa phrase "yihla moya" (in Zulu it is: "woza moya") means "come spirit"]

When i try to sleep at night / I can only
dream in red / the outside world is black
and white / with only one colour dead /
oh Biko, Biko...

You can blow out a candle / but you can't
blow out a fire / once the flames begin to
catch / the wind will blow it higher / oh
Biko, Biko...

And the eyes of the world are / watching
now.

Peter Gabriel